# HERNANIko
# TOKIKO AGENDA 21EKO EKINTZA-PLANA
# **2015eko EBALUAZIO-EMAITZAK**

Hernaniko Udala

***Gipuzkoako udalerriei TA21eko ekintza-planak ebaluatzeko eta programatzeko zerbitzua***

*Laguntza teknikoa:* ***ELKARREKIN 21***

TA21EKO BEHATOKIA
OBSERVATORIO AL 21
GIPUZKOA

Elkarrekin21

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua

ORAIN GIPUZKOA

# Tokiko Agenda 21

1992an jaio zen (Rio de Janeiron) Garapen Iraunkorrari buruzko Nazio Batuen goi-mailako gailurrean lortutako hitzarmenaren bidez.

**24 urte beranduago,** esanguratsua da **Gipuzkoa udalerrietan Tokiko Agenda 21ak izan duen garapen-maila.**




2016. urtean ebaluatu ditugun ekintza-planak udalerri hauei dagozkie:

**Aduna, Alkiza, Amezketa, Andoain, Arama, Arrasate, Astigarraga, Azpeitia, Deba, Debabarrena** (eskualdeko ekintza-plana), **Donostia, Hernani, Hondarribia, Ibarra, Irun, Itsasondo, Ordizia, Orendain, Orexa, Tolosa, Urretxu, Zegama eta Zumarraga.**

# Nolakoa da **gure udalerriko ekintza-plana**?

**11**
**Helburu estrategiko**

**175**
**Ekintza**

**24 udal eragile ezartze-lanetan**

## Gipuzkoako TA21arekin alderatuz?

Gure ekintza-planeko ekintza-kopurua antzeko tamaina duten lurraldeko udalerrien batez bestekoarekin alderatuz, **altuagoa** da.

Ekintzen garapenean **inplikatuta dauden eragile-kopurua** ere lurraldeko batez bestekoa baino **altuagoa** da, nabarmenki gainera.



# Nolakoa izan da ekintza-planaren ezarpen-maila 2015 urtean?

**%32a** ezarri da bere 3. urtean

**%9ko** hazkundea 2014 -2015 epealdian

## Bilakaerak zer adierazten du?

Lortutako ezarpen-maila **baxua** da desiragarria den **helburuko** balioarekiko. Era berean, Hernaniko Ekintza-planaren garapen-maila lurraldeko **batez besteko balioaren azpitik kokatzen da.**



# Nolakoa da ekintzen ezarpen-maila?

**Adierazgarria da 2014 urtetik 2015 urtera aurreratuta zeuden ekintzek izan duten bilakaera**. Izan ere, 2014ean soilik %18a ziren bitartean, 2015ean ekintza guztien %38a izatera igaro baitira.

Bestalde, Ekintza-planaren ekintzen ia %60a hasi gabe edo hasita zegoen 2015ean.



## 2015ean amaitutako ekintza adierazgarri batzuk:

3.1.2. Energiaren kudeaketarako udal arduradun bat izendatu
3.4.3. Industria guneko saneamendu sarearen azterketa bat egin eta informazio horretatik abiatuta GIS bat sortu.
4.1.3. Garbigunean berrerabili daitezkeen materialen biltegia sustatu
6.1.1. Leihatila bakarra martxan jarri udala eta herritarren arteko komunikazioa erraztuz
8.4.3. Turismoari buruzko web orri dinamiko eta erakargarria diseinatu eta abian jarri

## 2015ean hasteko dauden ekintza adierazgarri batzuk:

3.1.1. Udal-energiaren kudeaketarako plangintza bat egin
5.1.1. Atmosfera potentzialki kutsatzen duten jardueren zerrenda egin eta eguneratuta mantendu
5.2.1. Hernaniko errepide eta trenbideetatik igarotzen diren merkantzia arriskutsuen garraioari buruzko ekintza-plan berezia errebisatu eta eguneratu
6.2.2. Politikari eta teknikariez osaturiko barne-mekanismo bat sortu
7.5.1. Herriko eta eskualdeko enpresen artean lankidetza eta sareak sortzea bultzatu merkatuan lehiakorrago izateko bide bezala
9.4.7. Udaleko arlo eta zerbitzu guztien inmigrazioaren inguruko formakuntza antolatu
11.1.3. Gazteria zerbitzua antolatu/eguneratu

# Ildo estrategikoen araberako ezarpen-maila



# 2017 urtera begira bultzada beharko luketen helburu estrategikoak:

## Udalerriko ingurumen-kalitatea babestu eta arriskuak saihesteko beharrezko neurriak ezarri, inpaktuak murriztuz: %12ko ezarpen-maila lortu du

Honako helburu zehatzez osatuta dago:

- Airearen kalitatea, zarataren eta lurzoruen kudeaketa hobetu
- Ingurumen arriskuak saihestu eta horiei lotutako inpaktuak murriztu
- Udal mailan Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdeko estrategia bat martxan jarri

## Udalerriko garapen ekonomiko iraunkorra eta enplegua sustatuko dituzten politikak garatu eta martxan jarri: %13ko garapen-maila lortu du.

Honako helburu zehatzez osatuta dago:

- Enplegua sortu talentu ihesa ekidin eta egoerarik zailenetan dauden gizataldeei lan-merkaturatzea erraztuz
- Ekintzailetza eta lan-aukera berrien sorrera sustatu
- Enpresa-sarean iraunkortasun-baloreak eta ingurumen-hobekuntzak sustatu
- Tokiko merkataritza sustatu eta kontsumoaren kanporako ihesa ekidin
- Eskualde-dimentsioa eta lankidetza indartu enpresen lehiakortasuna areagotu eta aukera berriak sortzeko

# Partaidetza TA21en baitan

PARTE-HARTZE BIDE NAGUSIA GAIKAKO PARTAIDETZA-PROZESUAK DIRA

LANDU DIREN GAI NAGUSIAK: AURREKONTU PARTE-HARTZAILEAK, AUZOZ-AUZOKAKO BILERAK, ESKOLAKO AGENDA 21.

PARTE HARTZEN DUTEN ERAGILEAK: HERRITARRAK, ELKARTEAK, ESKOLA-KOMUNITATEA.

# Informazio gehiagorako **ebaluazio-txosten osoa** kontsulta dezakezu (**Hernanikoagenda21.net** web gunean eskuragarri)

